

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Pobesen igerilekuak eta taberna errentan hartzeko enkantea

Udal honek, 2019ko apirilaren 4an egindako bilkuran, onetsi zuen udal igerilekuak eta taberna (Pobes) errentan hartzeko arau izango diren klausula ekonomiko-administratiboen agiria. Onetsitako agiria jendaurrean egongo da 8 egunez, iragarkia ALHAOn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazio horiek udalak ebatziko ditu eta, halakorik aurkezten ez bada, agiria behin betiko onetsita geratuko da.

Aldi berean, lizitazioa iragartzen da. Dena den, lizitazioa atzeratu egingo da hala behar deanean, administrazio klausula berezien agiriaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero.

1. Erakunde esleitzaileria

a) Erakundea: Erriberagoitiko Udala.

2. Kontratuaren xedea

Igerilekuak eta taberna errentan hartzea.

b) Kokalekua: Araba, 44 - 01420 – Pobes.

c) Alokairu aldia: 2 urte, baina luzatu daiteke.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko era: enkantea.

4. Errentamenduaren zenbatekoa

Gutxienez 300,00 eurotan ezarri da (BEZa, zergak eta gastuak barne hartu gabe).

5. Bermeak

a) Behin-behinekoa: ez da ezartzen.

b) Behin betikoa: 3.000,00 euro.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea

a) Herria eta posta kodea:

Erriberagoitiko Udala.

Araba 2 - 01420 – Pobes.

Telefonoa: 945 36 20 21

Faxa: 945 36 20 07

web orria: Erriberagoitia.com

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko epemuga: eskaintzak aurkezteko azken eguna arte.

7. Eskaintzak aurkeztea

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 15 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian aipatzen direnak.

c) Aurkezteko lekua:

Erriberagoitiko Udala.

Araba 2 - -01420 – Pobes.

8. Eskaintzak irekitzea

Tokia:

Erriberagoitiko udaletxeko osoko bilkuren aretoa.

Herria: Araba 44 – 01420 Pobes.

Eguna:

A gutun azala, jendeari itxitako bilkuran.

B gutun azala, hamargarren egunean, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatuta, 10:00etan. Larunbata edo egun baliogabea izatekotan, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

9. Iragarkien gastuak

Esleipendunak ordainduko ditu.

Pobes, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ